



## Irakasleen 1. hizkuntza-eskakizuna (HE1)

### Zer da HE1?

Irakasleen HE1 hizkuntza-eskakizunak euskara ikastetxean harreman-hizkuntza moduan (ikasleekin, gurasoekin, irakasleekin) erabiltzea bermatzen du. Maila hori ez da aski euskara edo euskaraz irakatsi behar den lanpostuetarako (ikus 47/1993 Dekretua, apirilaren 2ko EHAAn). Europako Erreferentzia Markoaren B2 mailari dagokio.

### Noiz dira azterketa-deialdiak?

Urtero deialdi irekia izaten da, irakasle eta hezkuntza-langileentzat. Hezkuntzarako oposizioak deitzen direnean, hizkuntza-eskakizunen azterketa deialdi irekiaren barnean egiten da. Azkenik IRALE programan liberatuta dauden irakasleek eta hezkuntza-langileek deialdi itxian parte har dezakete. Matrikulatzeko epea urtarril aldera izan ohi da.

### Nolakoak dira azterketak?

Hiru proba daude, egun desberdinetan:

- **Atariko Proba:** aukera anitzeko galderaz osatua dago. 70 galeretatik 45 asmatu behar dira gutxienez.
- **Proba Idatzia.** Lau ariketa ditu: Ahozkoaren ulermena, Irakurmena, Idazlan laburra eta Idazlan Luzea.

ARIKETAK	PUNTUAK
Ahozkoaren Ulermena	0tik 5era
Irakurmena	0tik 5era
Idazlan Laburra	Oso Gutxi 1
	Gutxi 2
	Nahikoa 4
	Ongi 6
	Oso Ongi 8
Idazlan Luzea	Oso Gutxi 5
	Gutxi 10
	Nahikoa 15
	Ongi 20
	Oso Ongi 25
Gainditzeko	24 puntu

- **Ahozko Proba:** epaimahaiaren aurrean mintzatu behar da. Bi zati ditu: entzundako audio baten Azalpena eta aztertzaileekiko Elkarrizketa gidatua.

## **Zeintzuk dira HE1en baliokideak?**

Baliokidetza Dekretuaren esteka:

[http://www.euskadi.net/cgi-bin\\_k54/bopv\\_20?e&f=20101115&s=2010219](http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?e&f=20101115&s=2010219)